

Tokiko Diseinua  
Artisautza  
Jasangarritasuna

# Merkatua

2024.10.05 — 06



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

*Merkatua* jasangarritasuna interesatzen zaien eta beren tokiko diseinu eta ekoizpeneko produktuak ezagutzera eman nahi dituzten sortzaileei zuzendutako proposamena da.

Urriaren 5 eta 6ko asteburuan, 16 sortzailera arteko talde hautatu batek bere proiektu eta produktuak Cristóbal Balenciaga Museoan erakusgai izateko aukera izango du, aldi berean sormenezko prozesuak ere partekatuz, museoko publiko desberdinentzat antolatuko diren topaketa eta lantegietan.

Show room moduko espazio bat izango da, tokiko talentuaren eskutik kontsumo kontzientea sustatzeko helburua izango duena: diseinua, artisautza, kalitatea eta jasangarritasuna.

# Oinarriak

1. Helburua	Tokiko artisten, artisauen, diseinatzaileen talentuari, edo markei, ikusgarritasuna emateko helburuarekin, Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioaren asmoa da Cristóbal Balenciaga Museoan sortzaile horien bilduma propioetako produktuak erakusteko eta saltzeko aukera emango duen gunea sortzea. Era horretan, museora bertaratzen den nazioarteko profila duen publikoak, diseinu eta moda fenomenoarekiko sentsibilitate-maila handikoak, aukera izango du tokiko sortzaileen produktuak ezagutu eta, hala badagokio, erosteko. Horretarako, deialdia ireki da, 2024ko urriaren 5-6ko asteburuan gauzatuko den lekuko merkataritza erakusketarako proposamenak hautatzeko.
2. Eskatzaileak	Eskatzaile fisikoek nahiz juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo/eta Iparraldean izan behar dute zerga-helbidea, eta, hautatuak izanez gero, proposamenean bildutako produktuak salmentarako hornitzeko moduan egon behar dute, bai eta baliabide teknikoak eta faktura simplifikatuak igortzeko beharrezko euskarriak eduki ere.
3. Produktuak	<p>Proposamenetan biltzen diren produktuek modako diseinuarekin lotura duten kategorietakoak izan behar dute, besteren artean: zapiak, poltsak, bitxiak, kapelak, burukoak, gerrikoak, oinetakoak edo jantziak, betiere, produktu horiek erabilgarri dagoen espaziora egokitzeko aukera eta probalekurik erabiltzeko premiarik ez badakarte, ez baitago museoan halakorik. Proposamenetako produktuek gutxienezko hornikuntza komertziala berehala bermatu ahal izateko moduan egon behar dute eskuragarri.</p> <p>Produktuek eskatzailearen jatorrizko diseinua izan behar dute. Izan ere, deialdi honetarako ez da beharrezkoa produktuen diseinua eskusiboa izatea, edo bide honetatik bakarrik erakutsi edo saltzea; helburua tokiko sortzaileen lan-lerroei komunikazio aukera eta ikusgarritasuna ematea da, eta ez ez sortzaileek Cristóbal Balenciaga Museoari, bere irudiari edo bere markari lotutako produktuak garatzea, edo bertako edukietan inspiratutakoak izatea. Hortaz, eskatzaile bakoitzak erabakiko du bere lana ondoen adiezari, eta erabili ahal izango duen espazioan aproposen egokitzen den proposamen zehatza.</p>
4. Espazioa (Ikus 2.eranskina)	Deialdi honen objektuari eskainiko zaion erakusketa espazioa Cristóbal Balenciaga Museoaren behe solairuan dago eta sarrera libre izango du. Erakustoki bat jarriko da hautatutako proposamen bakoitzerako. Fundación

Cristóbal Balenciaga Fundazioak esleituko ditu *stand* moduko erakustokiak, produktuen irudi ahalik eta erakargarria lortzeko. Adjudikaziodun bakoitza arduratuko da *stand* horretan produktuak aurkezteaz, hau da, hornitzaile bakoitzak muntatu eta antolatuko du bere erakustokia (ekitaldiaren aurreko egunean edo egunean bertan, goizean), eta ekitaldia amaitzean desmuntatu beharko du.

Ez dira espazio jakinak erreserbatuko hautatutako pertsona edo markentzat; izan ere, bilduma osoaren amaierako efektuari emango zaio lehentasuna. Produktuen aurkezpenaren inguruko erabakia eztaba daezina izango da.

---

## 5. Proposamenen aurkezpena

Eskatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztuko du deialdi honetan. Proposamenak posta elektronikoz aurkeztu behar dira, honako helbidera bidaliz: [info@fbalenciaga.com](mailto:info@fbalenciaga.com). Mezuaren gaiaren eremuan «Merkatua» idatzi behar da. Proposamenak aurkezteko formatua PDF dokumentarena izango da, eta bere pisuak ezingo ditu gainditu 5 MBak, honako atalak bildu beharko ditu proposamenak:

- Eskatzailearen kontaktu datuak eta posta elektronikoaren helbidea.
- Marka edo sortzailearen aurkezpen laburra.
- «Merkatua»rako aurkeztutako produktu bakoitza, argazki eta guzti (produktuaren 3 argazki, gehienez, ikuspegi desberdinetatik ateratakoak), eta gutxienez honako xehetasun hauek zehaztuta: diseinuaren kontzeptua edo ideia, materialak, funtzionalitatea, neurriak eta salmenta-prezioa (BEZa barne).
- Proposamen eta/edo markaren GJH autoebaluazioa: GK Green Fashion moda jasangarriaren klusterreko kide izanik, Cristóbal Balenciaga Museoak ekimen honen helburu nagusitzat jotzen du jasangarritasunarekiko konpromisoa; beraz, garrantzitsua da konpromiso hori partekatzen duten enpresa eta erakundeei ikusgarritasuna ematea. Horregatik, enpresa eta/edo pertsona parte hartzaile guztiei eskatuko zaie GJHen inguruko autoebaluazio galdetegi bati erantzuteko eta proposamenarekin batera eransteko.

Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioak 12 proposamen hautatuko ditu gehienez aurkeztutakoen artean, eta beste bi itxaron zerrendan utziko ditu.

Proposamenak aurkezteko epea uztailaren 22ean amaituko da (23:59an). Eskatzaileek baldintza guztiak bete beharko dituzte. Ez da onartuko osatu gabe dagoen edo hutsuneren bat duen eskaririk. Deialdi honetan eskaera bat aurkeztean, eskatzaileak adierazten du bertako baldintzak eta betebeharrak ulertu, onartu eta betetzen dituela.

---

## 6. Proposamenen hautatzea

Hautaketarako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Pertsona/enpresa/markaren ibilbidea
- Aurkeztutako prozesu/produktuen sormena eta berrikuntza
- Barne dituen jasangarritasun irizpideak
- Proposamenaren egokitasuna «Merkatua» ekimenaren multzo barruan eta, zehazki, deialdi bereko gainerako proposamenen artean.

Hautaketa Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioko taldeak egingo du. Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioak deialdia esleitu gabe uzteko eskubidea izango du, erakusketa proiekturako eta eskainiko den espaziorako nahikoa kalitate duten behar adina proposamen ez daudela erabakitzen badu.

Hautaketa prozesuan, Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioak proposamen bateko produktuen lagin fisikoak eskatzeko eskubidea izango du. Aurrehautaketa proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo 30 egunetan jakinaraziko zaie parte hartzaileei, posta elektronikoz. Hortik aurrera eta 10 eguneko epe barruan gehienez, deialdi honen 1. Eranskinean eskatzen zaizkien baldintza guztiak bete beharko dituzte hautatuek. Hautatu diren pertsona edo markek deialdiaren baldintzak onartu beharko dituzte, hautatu diren gainerako proposamenei buruzko informaziorik jaso gabe eta «Merkatua» espazio barruan egokituko zaien erakustokia ezagutu gabe. Baldintzak onartu ondoren, hautatutako pertsona eta markek ezingo dituzte proposamenak atzera bota.

---

## 7. Datu pertsonala babesteari buruzko legea

Eskatzaileei jakinarazten zaie erakundeak tratatu egingo dituela eskaintzan jasotako datu pertsonalak nahiz hautatuak izanez gero hautagaiek ondoren Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioari emango dizkioten bestelako datuak (adib.: izen-abizenak, NAN zenbakia eta helbide elektronikoa), deialdi hau kudeatzeko, proposamenak hautatzeko eta hautatutako pertsonekin harremana kudeatzeko helburuarekin; hori guztia, haien oniritziaren oinarri juridikoaren babesean. Testuinguru honetan, eskatzaileei jakinarazten zaie datu pertsonal horiek ematea derrigorra dela eta horiek ez aurkeztea edo datu okerrak ematea oztopoa izango dela Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioak haien eskaera kontuan har dezan. Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioak eskatzaileen datu pertsonalak gordeko ditu eskubidea baloratzeko beharrezkoa den denbora-tartean, baita hautagaiek deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko ere, legeobligazioak betetzeko datuak gorde beharreko denbora-tarte gehigarrian. Kasu orotan, eskatzaileei jakinaraziko zaie eskubidea dutela (I) Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioari eskatzeko euren datu pertsonaletara sartzea, eta horiek zuzendu, ezabatu, horien tratamendua mugatu eta horiek eskualdatzeko edo tratamendua aurkaratzeko, idatzizko eskaria zuzenduta Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioari, honako posta helbide honetara: Aldamar parkea 6, 20808 Getaria (Gipuzkoa); eta, era berean, eskubidea dutela (II) erreklamazioa aurkezteko Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean edo eskumena duen edozein Kontrol Agintaritzaren aurrean, bereziki eskubideak baliatzeko orduan bere nahiak asebetze ez direnean. Proposamenak aurkeztean, eskatzaileek berriaz onartuko dute beren datu pertsonalen tratamendua, gorago adierazitako baldintzetan.

Erantzukizunpeko adierazpen eredua, kontratatzeko debekuen eta bateraezintasunen pean erori ez izanarena, zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekin dituenak egunean edukitzearena eta jarduera ekonomikoa burutu ahal izatearena.

---

Izena

---

NAN/AIZ

---

Ordezkarria

---

IFZ

---

Kargua

---

Adierazten du

- I. Sozietatea, dagozkion administratzaileak eta legezko ordezkariak, baita sinatzailea ere, ez direla erori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen —azaroaren 8ko9/2017 Errege Lege Dekretu bidez onetsitakoa— 71. artikuluan adierazitako debeku eta bateraezintasun bakar baten pean ere.
- II. Aipatutako pertsona fisikoak edo erakundeak indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga-betebeharrak egunean dauzkala baita Gizarte Segurantzarekin dituenak ere, eta baldin baditu, bermatuta daudela.
- III. Aipatutako pertsona fisikoa edo erakundea EJZren epigrafe batean eta BEZaren zentsuan alta emanda dagoela, proposamenean bildutako produktuen ekoizpen- eta salmenta-jarduerak burutu ahal izateko.

---

Lekua


---

Data


---

Sinadura


A. Stand gehigarria






B. Stand nagusia



C. Pertxeroa



Montatzeko aukera ezberdinak



Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria  
T +34 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

